OIARTZUNGO UDALA

OIARTZUN UDALERRIKO BRIGADARAKO N1 KATEGORIAKO KAMIOI BASKULAGARRIA HORNITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA.

1.- HELBURUA

Baldintza Teknikoen Agiri honen helburua da, Oiartzungo Udaleko brigadarako ibilgailu bat erosteko baldintzak ezartzea, N1 kategoriako kamioi baskulagarria B motako gidabaimenarentzat.

Hornituko den ibilgailua berria izango da.

2.- LIZITAZIO AURREKONTUA

Kontratu honen gehieneko lizitazio prezioa hau da: 60.500,00 (BEZ barne). Honela xehetuta:

N1 KAMIOI BASKULAGARRIA.

GASTUAK		
N1 Kamioi baskulagarria.		42.016,81
Gastu orokorrak %13	5.462,19	
Onura industriala % 6	2.521,00	
BEZ gabeko oinarritzko zenbatekoa		50.000
BEZ-a (%21)	10.500,00	
GUZTIRA		**60.500,00**

3.- ESLEIPENDUNAREN KONTURAKO GASTUAK

Esleipendunak honako gastu hauek ordaindu beharko ditu:

- Ibilgailuak agiri honetan ezarritako gutxieneko baldintzak betez garraiatzeko eta Oiartzungo Udalak esaten duen lekuan entregatzeko gastuak.
- Ibilgailuak matrikulatzeari dagozkion gastuak.
- Ibilgailuen azterketa teknikoa gainditu izanaren ziurtagiriaren gastuak.
- Horniketaren ondorioz ordaindu beharreko zerga edo zamen gastuak.
- Oiartzungo Udalak emango dion logotipoa ibilgailuan jartzeko serigrafia edo errotulazio lanen gastuak, eta adierazten zaizkion islagailuak jartzekoak.
- Agiri honetan ezarritako berme-epean zehar egin beharreko mantentze-lanen gastuak.

4.- HORNITU BEHARREKO IBILGAILUAREN EZAUGERRI TEKNIKOAK.

4.1.- N1 KAMIOI BASKULAGARRIA.

Erosi beharreko ibilgailua bi ardatzetako kamioi baskulagarria da N1 kategoriakoa 70/156/CEE Direktibaren arabera, gehienez 3,5 tonako pisua duten merkantziak garraiatzeko ibilgailua, eta B motako gidabaimenarekin (M.M.A.< 3500kg) gidatu ahalko da.

ESKU9507f840-0885-4620-b2f8-b1f39ea1ddda

Kabinaz eta karga-eremu bereziez osatuta egongo da, eta kanpoko gehieneko neurriak honako hauek izango dira:

- Kamioi karrozatuaren gehieneko luzera 6,600 m.
- Gehieneko zabalera atzera-ispilurik gabe 2,000 m.
- Ardatzen arteko gehieneko distantzia 3,500 m.

4.1.1.- MOTORRA ETA EZAUGARRAK:

- Euro 6e diesel errekuntzako motorra, 4 aldikoa, 16 balbula eta injekzio zuzenekoa.
- Gutxieneko potentzia 120cv eta gehieneko zilindrada 3000c.c.
- M.M.A. 3500 kg
- Aldaketa-kaxaren transmisioa automatikoa.
- Lagundutako direkzioa.

4.1.2.- BASTIDOREA:

Bastidorea autosostengatzailea izango da, eta bertan instalatu behar diren elementu guztiak kokatzeko eta garraiatzeko beharrezko ezaugarri guztiak izango ditu, kargatzeko bere aukerak gainditu gabe, eta bere dimentsioak ahalik eta txikienak izango dira maniobratzeko erraztasuna hobetzeko. Erraztasun horren alde, kabina aurreratua izango da.

Txasisa erresistentzia handiko altzairuz egina egongo da, korrosioaren aurkako babesa duten langak eta langetak dituena.

70 litro inguruko erregai-depositua jasoko du, eta atzeko azpikotzearen kontrako babesa edukiko du atoi krokadurarekin.
Adblue deposituak 10 litro inguruko gaitasuna izango du.

4.1.3.- FRENATZEKO GAILUA:

- Balazta-diskoak lau gurpiletan.
- Esku-freno elektrikoa.
- Egonkortasunerako programa elektronikoa (ESP).
- Balaztak ez blokeatzeko sistema (ABS).

4.1.4.- KABINA ETA EKIPAMENDUA:

Kabinaren kanpoko kolorea erabat zuria izango da, korrosioaren aurkako tratamenduarekin eta baxuen urraduraren aurkako tratamenduarekin.
Kabinak honako ekipamendu hau izango du gutxienez:

- Hiru plaza (gidaria + 2 bidaiari).
- Atzeko leihoa, karga ikusteko.
- Hiru ainguraketa-puntu dituzten buru-euskarriak eta segurtasun-uhalak.
- Gidariarentzako eta laguntzailearentzako airbag-a.

ESKU9507f840-0885-4620-b2f8-b1f39ea1ddda

- Bi eserleku, gidariarena altuera erregulagarria duena.
- Urrutiko agintea duen itxitura zentralizatua.
- Giltza bakarra zerbitzu guztietarako. 2 giltza hornituko dira, gutxienez.
- Gidariaren eta laguntzailearen leihoak jasogailu-elektrikoarekin.
- Atzerako ispilu elektrikoak eta berogailuarekin, atzeko kamara integratuarekin.
- Aire egokitua kabinan.
- Direkzio-zutabe erregulagarria, eta komandoak bolantean.
- Bluetooth bidezko irratia, USB konexioarekin.
- Atzera-martxako argi automatikoa.
- Atzerako martxako ohartarazle akustikoa.
- Segurtasun-triangeluen jokoa.
- Txaleko islatzaile homologatua
- Barruko alfonbrak.
- Behelaino-argiak, aurrekoak eta atzekoak
- Faroen argiztatze automatikoa
- Biled moetako faroak, aurrekoak zein atzekoak

Gidatzeko laguntza extrak baloratuko dira.

4.1.5.- KARROZERIA:

Ibilgailua altzairuzko karrozeria baskulagarriarekin egingo da eta legeztatuko da, N1<3500 kg kategoriako ibilgailuentzat, honako ezaugarri hauekin:

- Kutxaren kanpo-neurriak:
  - Kanpoko luzera 3.900 mm. ± 5 mm
  - Kanpoko zabalera 2.000 mm. ± 5 mm

- Aluminiozko bi kartola alde banatan, biak 60 cmko altuerarekin.
- Atzeko ateak liburu moetakoak, albokoen altuera berberekoak
- Atzeko atearen euskarria, irekita daudenerako.
- Oinarria 3 mm tako altzairuzko xaflazkoa, epoxi inprimazioa eta poliuretanozko akabera dituena.
- Goi aldeko kaballetea alumiozkoa eta zulatutako xaflazkoa kabina babesteko
- Behe aldeko frentea aluminiozko taulekin egina
- Alboko zutabeak eta atzeko zutabeak aluminiozkoak
- Erdiko zutabeak desmuntagarriak
- Oinarri lauko aleta termoplastikoak.
- Gomazko faldoiak
- Erraminta kutxa
- Alboetako eta atzeko galibo-argiak.
- Ordezko gurpila dagokion euskarriarekin
- Kabinatik abiarazten den ekipo baskulatzailea, tekla instalatuta eta eragintza-aginteak aktibatzeko bonbillarekin

ESKU9507f840-0885-4620-b2f8-b1f39ea1ddda

- Karrozeriaren berezko homologazioa.
- Atoia eramateko lotura.
- Ibilgailuaren homologazioa.

5.- ENTREGATU BEHARREKO AGIRIAK

5.1.- Aldez aurretik entregatu beharreko agiriak

Derrigorrez eskaintza ekonomikoarekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Fitxa teknikoak (ezaugarri berak dituen ibilgailu baten fitxa teknikoaren kopia eta fitxa komertziala).
- Lan tresneriari dagozkion EE ziurtagiriak (ezaugarri berak dituen ibilgailu baten ziurtagiriaren kopia). Betetzen diren araudi eta zuzentarauak adieraziko dira.
- Fabrikatzailearen ziurtagiria, emisio kutsakorrei (Euro 6 gutxienez) buruzkoa (ezaugarri berak dituen ibilgailu baten ziurtagiriaren kopia).
- Edukiko den laguntza teknikoko zerbitzu ofizialaren eta tailerraren kokapenari buruzko informazioa.

5.2.- Ibilgailuarekin batera entregatu beharreko agiriak.

Ibilgailuarekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Ibilgailuari dagozkion jatorrizko agiriak, aurreko atalean deskribatutakoaren arabera.
- Mantentze-plan prebentiboa, ibilgailuaren mantenuan egoera onean mantentzeko beharko dutena.
- Ibilgailuaren eta jarritako elementu guztien erabilera eta mantenimenduari buruzko eskuliburua, euskaraz edota gaztelaniaz.

6.- IBILGAILUA ENTRAGATZEKO ETA JASOTZEKO EPEA

Ibilgailua entregatzeko gehieneko epea 4 hilabetekoa izango da, esleitzen denetik hasita, bere garaian adierazitako udal-bulegoetan. Entregatzeko epe laburragoak baloratuko dira.

Esleipendunak ibilgailua behar bezala entregatuko du behar den dokumentazio guztiarekin ustiatu ahal izateko, aseguruak bakarrik falta direla, ez besterik, eta ibilgailua entregatu arteko gastu guztiak bere konturakoak izango dira.

Esleipendunak, ibilgailuari dagozkion agiriak ere entregatuko ditu, eta baita zerbitzu eta operazioko esku-liburu teknikoak ere. Era berean, ibilgailua behar bezala funtziona dezaten beharrezkoak diren gailu, osagarri eta tresna guztiak entregatuko ditu esleipendunak.

Ibilgailua ikuskatu eta probatu egingo da, behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzeko.

Anomaliak aurkituz gero, aktan adieraziko da, baita akatsak zuzentzeko epeak ere.

ESKU9507f840-0885-4620-b2f8-b1f39ea1ddda

OIARTZUNGO
UDALA

7.- BERMEA

Esleipendunak ibilgailua BI URTEZ bermatu beharko ditu, jasotzen den egunetik kontatzen hasita. Berme horretan sartuko da ez bakarrik hornitutako materialaren kontserbaziorako beharrezkoa den guztia eta pieza guztiak, baizik eta baita ere laneskua, desplazamendu gastuak eta garraioa.

Berme horretatik kanpo geratuko diren bakarrak, ibilgailuen ohiko funtzionamenduaren ondoriozko higadura duten piezak eta kontsumigarriak izango dira.

Multzorako baino berme epe luzeagoak izan ditzaketen multzoetarako eta elementu eta multzo mekanikoetarako estaldura-epe zehatzak ezarriko dira, eta zehaztuko da, halaber, horiek laneskuan, material eta ordezko piezetan, edo bietan izan dezaketen eragina.

2 urtetik gorako berme-aldiak baloratuko dira.

8.- SALMENTA ONDOKO ZERBITZUA

Edukiko den laguntza teknikoko zerbitzuari eta eragile ofizialei buruzko informazioa emango da eskaintzarekin batera.

Ibilgailua entregatzearekin batera jakinaraziko da goian esandako horien artetik zein izango den bermearen estaldura ziurtatzeaz arduratuko den laguntza teknikoko zerbitzua.

Oiartzunen, sinaduraren egunean
Udal arkitekto teknikoa
Elektronikoki sinatua

Nork Sinatua / Firmado por: ASIER TELLERIA IZTUETA - 44135813D
2025/07/09 13:58:21

EKS | CSV: ESKU9507f840-0885-4620-b2f8-b1f39ea1ddda
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310